

GIG 25

ANDUTZEKO FAILA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **2,88**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Andutzeko faila Geoparkeko akzidente tektonikorik garrantzitsuenetako bat da, eta Mendatako puntan bereizten da ondoen. Failak N-S norabidea du, eta kostaldeko azaleramenduan, Geoparkeko flyscharen bi unitate nagusiak bereizten ditu: Behe Kretazeoko flysch beltza, mendebaldean dagoena, eta Kretazeoko eta Tertiarioko sekuentzia, ekialdean dagoena. Trantsizioan, 4 milioi urteko omisioa dago, gutxi gorabehera; duela 100 milioi urteko duela 96 milioi urtera bitartekoa, hain zuzen ere. Kontaktu mekaniko horren ondorioz Geoparkeko itsaslabarrik deigarrienetako bat eratu da: Aitzuriko hormatzarra. Hormatzar horretan, Goi Kretazeoko karekizko flyscha ebakitzen duten zartadura asko eta asko bereizten dira, eta dirudienez, failarekin berarekin daude lotuta.

Goitik begiratuta, badirudi faila senestrosa dela, eta Aptiarretik Cenomaniarrerainoko materialak zeharkatzen ditu. Horrez gain, argi hautematen NW-SE norabideko egiturak ere zeharkatzen dituela; Pirinioetako orogeniako konpresio-fasearen ondorioz sortutako egiturak, hain zuzen ere. Mendatako puntan, bestalde, Turoniarraren bukaerako bretxa-metakin bat bereizten da, eta dirudienez, failaren beraren jardueraren ondorioz eratu zen. Horri dagokionez, pentsatzekoa da Andutzeko failak jatorri kretazeoa duela eta flyscharen sedimentazioa baldintzatu duela; dena den, sedimentazioa, seguru asko, berraktibatu egingo zen Orogenia Alpetarrean, eta egun ezagutzen dugun egitura eratu zen horren ondorioz.

NOLA BERTARATU

Itziarko gainean, N-634 errepidean, Itxaspe kanpinera joateko bidea hartu behar da. Bide horretatik trenbide zaharrera jaitsi eta trenbidean zehar ekialderantz jo behar da, Aitzuriko hormatzarra ikusi arte. Lurmuturraren ekialdera joateko, berriz, GIG 24ko argibideei jarraitu behar zaie.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Usarragaundiko Gabarlekuko trenbidea edo Mendatako senadia.



Andutzeko faila, Itxaspe inguruko trenbide zaharretik ikusita. Eskuinean flysch beltza dago, eta ezkerrean, berriz, Goi Kretazeoko karekizko flyscha.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555117 m / Y= 4793979 m / Alt.= 30 m



Andutzeko failaren xehetasuna.